




Jolas-hitzak: Igarkizunetik iragarkizunera

JUAN KRUIZ IGERABIDE

Hitzaren jolasa bizitzaren adierazle askotarikoa, jakintza ororen iturri. Igarkizunen kasua aztertuko da (matematikatik poesiara). Iragarkizuneri dagokienez, urteko zikloen eta literaturaren arteko harremanaz arituko gara (adibidea: Eguberria: izadiaren mitologizaziotik denbora ziklikoaren jolasera).



Juan Kruz Igerabide (Aduna, 1956)

Lehen Hezkuntzako irakaslea zenbait urtetan, eta gaur egun EHUko irakaslea (Euskara Zerbitzuko kidea eta Mikel Laboa Katedrako zuzendaria). Haur literatura landu du gehienbat (poesia eta ipuina) eta aldika helduentzat ere idazten du (poesia eta nobela). Ikertzaile gisa, ahozkotasuna eta haur poesia aztertu ditu, besteak beste.

Jolasaren hizkuntza eta hizkuntzaren jolasa

JAIME ALTUNA

Xirristi mirristi, gerrena pla, olio zopa, kikili salda, edan edo klik...

Hitz magikoak; sorgin hitzak edo hitz jokoa? Artxila mortxila bezain magikoak egiten zaizkigu garai batean dona-dona egiteko erabiliak ziren leloak. Hala bada ez da sorginek baliatzen zituztelako, haurrek jolaserako erabiltzen zituztelako baizik.

Aspaldidanik hitzen lilura jolasetan aurkitu dute haurrek eta hitzen magia jolasen bidez transmititu da. Jolasetan bizitza arruntarekin alderatuta irrealtasunaren kontzientzia bat dago: "Beste zerbait gara", "Beste gauza batzuk egiten ditugu"; dena da misterio, dena jolaskideekin partekatzen den sekretu.

Hitzen lilurak dakar erabilera. Lilura hori jolasetan aurkituko dugu haurren hezkuntzan gabiltzanok.

Saio honetan gelan egiteko hizkuntza jolasak landuko ditugu. Baita kalean hizkuntzarekin eta hizkuntzaren bidez jolasteko tresna ere. Jolasak sortuko ditugu eta jolasak sortzeko ideiak luzatuko ditugu.

...ikimilikiliklik



Jaime Altuna (Villabona, 1973). Ingeniaritza Teknikoko ikasketa egin zituen arren, ibilbide profesional osoa haur eta gazteen heziketarako programetan egin du. Hamaika lan pentsatu edota gauzatu ditu alor horretan: Kale antzerkia haurrentzat, telebistako haur saioen produkzio laguntzaile, ipuin kontalaritza eta irakurketa sustatzeko programak, kale animazio zerbitzuen antolaketa, udalekuak...

1997. urtetik Gipuzkoako Urtxintxa Aisialdi Eskolan aisialdia, jolasa eta hizkuntza arloak uztartu ditu program askoren bidez: formazioa irakasle eta aisialdiko hezitzaileentzat, haur eta gazteei zuzendutako parte-hartze programak eta jolas argitalpenak.

Kontaktaren erritmoan: jolasean elkarrekin

PELLO MARI AÑORGA

Kontaktaren erritmoan jolasten arituko gara elkarrekin:

kontatzen bat eta kontatzen bi,

kontatzen hogeita bi,

eta hiru,

hausnartuz hogeita hiru,

kontuaren adar begiak esnaturik.



Pello Añorga (Oiartzun, 1956). Irakasle lanetan aritu zen Oiartzungo ikastolan (1976-86). Irakaskuntza utzi eta Euskal Herrian barrena hasi zen ipuinak kontatzen. Kontatzen ez ezik azpiegitura lanetan ere jardun zuen; dela irakurketa animazioan, dela ipuin kontagintzan. Egun, kontatzeaz gain ipuin-tailerrak ere eskaintzen ditu, besteak beste, Mondragon Unibertsitateko HUHEZI Fakultatean. Idazle gisa sari batzuk irabazi ditu. Esaterako: album ilustratuei buruzko Etxepare saria (2007) eta Euskadiko Haur literatura saria (2008).

Hitza jostailu bertso eskolan

OIHANE PEREA

Bertsoa berezko jostailu da bertso eskolan. Bertsoarekin jostatzerira iritsi aurretik ordea hamaika arlo lantzen ditugu jolasaren bidez, ikasleak motibatzeke ere oso lagungarri direnak. Euskal Herri osoko bertso eskoletan jasotako jolas batzuk azalduko ditugu, ezagutu, praktikatu eta hausnartzeko.



Oihane Perea (Gasteiz, 1977). 12 urte zituela hasi zen Gasteizko bertso eskolan ikasle, eta 16 urterekin hartu zuen bertso-eskolako talde baten ardura estreinakoz. Geroztik Araban bertso-eskolak sortzea eta bertan irakasle lanetan aritzea izan dira bere egiteko nagusiak. Bertso udaleku eta barnetegietan haur eta gaztetxoek begirale izan da urte askotan. Irakasle ikasketak eginak ditu Unibertsitatean. Arabako Bertsozale Elkarteko irakasle eta eragilea da egun. 2007, 2009 eta 2013an irabazi du Arabako Bertsolari Txapelketa.

Kantu jolasa: karaokeen prestaketa

GABI DE LA MAZA

- ***KARAFUN*** programa.
- *Format factory* (Audio eta bideo konbertsorea)
- *Atube catcher* (Youtubetik bideoak jaisteko moduak)
- *Youtube* eta esteka interesgarriak



Gabi de la Maza (Gorliz, 1956). Hamaika abesbatzetako tenore. Ikasketaz, maisutza industrialia eta irakaslea ikasketak egin, Euskal Filologian trebatua. Azken 33 urteotan irakasle aritu da lehen hezkuntzan. Plentziako Euskal Girotze Barnetegiko begirale-zuzendaria da. Barnetegiak girotzeko oso garrantzitsua izan da kantua. Horrek lehen euskal karaokea ekoiztera eraman zuen, 2005. urtean. Geroztik 19 milioi bisita baino gehiago izan ditu berak sortu Youtube kanalak. 800 euskal kante osatzen dute egun <http://www.youtube.com/txatxangorria> kanalaren bilduma.

Kantuan: gorputz eta arimarekin jolasean

OSKAR ESTANGA

- *Zer kantatzen dugu eta zergatik?*
- *Gorputza eta kantatzea (ariketa praktikoak)*
- *Kantua lantzeko jolasak*



Oskar Estanga (Gaintza, 1978). Irakasle-eskola musikalean diplomatua da. Kantaldi parte hartzaileetan dinamizatzaile eta Nafarroako Kantuzale Elkartearen lanean aritua. Bertsolaria ere bada, bat-batean bertsoa eta musika proiektuko sustatzailea, batukada irakaslea, umeen antzerkilari, bertso udalekuetako grabaketen arduradun...

Jolasetik antzerkira

AINARA GURRUTXAGA eta URKO REDONDO

Tailer praktiko honetan gure jardunean erabiltzen ditugun jolasak partekatuko ditugu. Jokoa ezinbesteko tresna da antzerki sorkuntzan eta baita antzerki pedagogian ere. Itxuraz jolas soilak diren horien atzean ezkututzen dira antzerkiaren oinarri garrantzitsu asko: kontzentrazioa, presentzia, talde entzumena, erritmoa, arauen ezagutza, arauen puskatzea ... Jolasak antzerkirako lehen hurbilpenerako ezinbesteko tresna dira.



Ainara Gurrutxaga (Erreterria-Orereta, 1977). Zuzendari laguntzaile lanetan aritua da Tanttaka eta Antzerkiola Imaginarioa taldeetan. Hainbat komunikabidetan antzerkiaren inguruko artikuluak idazten ditu. EHUn kazetaritzan lizentziatua da, eta antzerki ikasketak London International School of Performing Arts eskolan (2003-2005).

Urko Redondo (Erreterria-Orereta, 1977). London Puppet Schoolen egin zituen txotxongilo ikasketak (2003-2005). Tailer zenbaitetan ere aritu da Krakoviako Krzysztofory, Wroclaweko arte eskolan baita Mar Navarro eta Stephen Mothran eta Faulty Optic-ekin ingalateran. Antzerkiola Imaginarioarekin egin du lan eta Dejaburen txotxongilo eta eszenografiezen gain beste hainbat konpainientzat ere egin ditu sorkuntzak: Tentazioa, Behibis... Pedagogian lizentziatua, antzerki irakaskuntzan ere jarduten du azken urteetan.

Ainara Gurrutxaga eta Urko Redondo ***Dejabu panpin laborategia*** konpainiako kide dira. Euren sorkuntza lanek txotxongiloen eta antzerki fisikoaren eragin nabarmena dute. “Errautsak”, “Azken portua” eta “Gure bide galduak” dira taularatutako azken lanak. Antzerki irakaskuntzan ere badute eskarmentua, haurrei zein helduei zuzendutako ikastaro ugari eskaini baitituzte azken urteetan.

Joko eszenikoa

EÑAUT GANTXEGI

Jokatu eta jolastu, bi gauza dira. Antzerkian ere bi aditzak desberdindu behar dira. Joko eszenikoaren funtsa taula gaineko Jokoa den antzerkian Jolasa aurkitzean datza. Jolasaren plazeretik haragoko emaitzarik ez duten joko ariketak praktikatuko ditugu, ikasleak eroso sentitu eta konfiantza lortzeko.



Eñaut Gantxegi (Lezo, 1974). Soziologian lizentziatua. Donostiako Arte Eszenikoen Tailerrean ikasia. Bertako irakasle da 2009az geroztik, Joko Eszenikoa irakasten. Hamaika antzerki talderekin lan egin du: *La cubana*, *La fura dels baus*, *Ados*, *Irrien lagunak...* Antzerkian ez ezik, telebista, zinema eta bestelako arte eszenikoetan ere jardun du. Telesail eta filmetan ere parte hartu du.